

KILO
▶ BETE ◀
★ AHOLKU ★



Lezoko Unibertsitateko Udala



ongizate iraunkorra



Eskolako Agenda
Agenda Escolar

MURRIZTU,
BERRERABILI
★ ★ **ETA** ★ ★
BIRZIKLATZEKO
AHOLKUAK

Ikasturte berri honetan berriz ere **KONTSUMO ARDURATSUA** landuko dugula aitzakia hartuta, eskuartean duzun gida hau prestatu dugu Lezoko eskolentzat eta baita gai honi buruz jakinmina duen herritar ororentzat ere. Horretarako, gidaren lehen atalean hondakinen ekoizpena murrizu eta, orohar, eguneroko jardueretan arduraz jokatzeko aholkuak jaso dira. Gidaren bigarren zatian Oarsoaldea eskualdean zein Gipuzkoa mailan arlo honekin loturiko ingurumen baliabideen zerrenda aurkituko duzu.

Kontsumo arduratsuari lotutako ezagupenak handitu nahi badituzu, denborarik galdu gabe, murgildu gida honetan barrena!

★ IKASTETXEA ★

Gelan

Dokumentuak inprimatu aurretik, bi aldiz pentsatu ea beharrezkoa den. Papera aurreztuko duzu.


Dokumentu bat inprimatu behar baduzu, saia zaitez alde batetik erabilitako orriak berrerabiltzen.

Dokumentu bat gaizki inprimatu baduzu, **saiatu orriak berrerabiltzen** (apunteak hartzeko edo adibidez). Berrerabiltzerik izango ez bazenu, birziklatu.

Erabili beti paper birziklatua eta, ahal duzunean, **bi aldeetatik eta zuribeltzean** inprimatu.

Ekidin "Post-it" moduko orritxoak oharrak hartzeko edo klasekideei abisuak uzteko. Erabilitako paperak balia ditzakezu horretarako.

Erabili klipak grapen ordeztu. Klipak behin eta berriro erabili daitezke, grapak, aldiz, behin baino ez.



Kliparekin
askoz
hobeto!!!

Gelan sortu eta berrerabiltzeko moduan aurkitzen ez den orri, paper eta kartoiak, eraman ezazu birziklatzeko edukiontzirainera.

Ipini ezazu gelan erabilitako orriak biltzeko kaxa bat. Modu honetan, apunteak hartzeko, ariketak egiteko edo oharrak uzteko berrerabil ditzakezu.

Gelan sortutako hondakinen **birziklapenean lagundu ezazu.** Horretarako, ipini itzazu hondakin mota bakoitza jasotzeko kaxa edo ontziak gelako tokiren batean. Kaxa hauetan jasotako hondakinak kaleko gaikako edukiontzira eramateko txandaka antola zaitezke.

Gelan, bulegoan edo laborategian sortutako **hondakin arriskutsuak behar bezala kudeatu** behar dira birziklatuak izateko. Hondakin arriskutsuen kudeaketaren inguruan zalantzarik izanez gero, ikastetxea IHOBerekin harremanetan jar daiteke **900 150 864** zenbakira deituz edo **hezkuntza.ha@ihobe.net** helbidera mezu bat bidaliz.

Eskola-liburuen berrerabilpenean lagundu ezazu, liburuak modu egokian erabiliz eta, beharrezkoa denean, konponduz. Horrela, zure ondoren datozen ikasleek liburu berak erabili ahal izango dituzte.

Jolastokian

Hamaiketakoa ahalik eta bilgarri gutxienarekin babestu: ontzitxo batean edo paperean bilduta eraman dezakezu eskolara.

Jolastokian birziklapena sustatu; proposa ezazu jolastokian hamaiketakoaren hondarrentzako, plastikozko bilgarrirentzako eta paper eta kartoiarentzako gaikako bilketa ipintzea.



Jantokian

Bazkari hondarrak bilgarriengandik bereizi eta eraman itzazu jantokian dituzun gaikako edukiontzietara.

Jantokian hondakinak gaika biltzen ez badira, horretarako egokiak diren bilketarako edukiontzia bertan ipintzea eskatu.

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak bultzatutako **“Eskoletako jangela ekologikoak”** ekimenaren inguruko informazioa eskuratu eta zure eskolak bertan parte hartzeko proposatu. Zure ikastetxeak sukalde propioa baldin badu, **“Ekolapiko”** ekimarekin ere bat egin dezake (www.ekolapiko.net).



★ ETXEAN ★

Erosketa arduratsua eta hondakin murrizketa

Erosketak egitera irten aurretik, **egin zerrenda bat** erosi behar dituzun produktuekin. Horrela, nahi ez dituzun produktuen erosketa egitera bultzatzen duten publizitate-estrategiak saihestuko dituzu.

Saiatu bilgarri asko dituzten produktuak ez erosten; horrela hondakin sorerara murriztuko duzu. **Eros itzazu produktuak soltean**; hondakin gutxiago sortzeko neurri eraginkorrenetarikoa da.

Tokiko **produktu freskoak eta garai garai** erositara, baliabide naturalen aurrezpenen lagunduko duzu. Ahal duzun neurrian, **aukeratu bidezko merkataritzako produktuak edo etiketa ekologikoa dutenak.**

Erosketak egiteko garaietan, produktuen etiketei erreparatu, batez ere **jatorria eta ekoizpen prozesuari** dagokionez.

Erabili orga edo zeure poltsak (telazkoak, plastikozkoak baino hobea) erosketak egiteko. Saiatu denda eta supermerkatuetako plastikozko poltsak etxera ez eramaten. Horrela ez bada, zuzenean zaborrontzira bota ordez, emaez beste erabilpen bat (zakar poltsa modura, esaterako).

Produktuak formatu familiarrean erosi itzazu (tamaina handiagoa dutenez, tamaina txikiko banakako produktuak erositara baino hondakin gutxiago sortuko dituzu).

Ahal duzun neurrian, aukeratu produktu konzentratuak. Zenbait kasutan, produktu hauek konzentratuak ez diren produktuak baino 6 aldiz gehiago irauten dute. Produktua erabiltzeko garaian, **egin kasu etiketak jasotzen dituen jarraipideei**.

Publizitate kanpainekin kritikoa izan zaitez. Izan ere, sarritan produktu edo zerbitzuaren neurrian kanpoko kontsumoa eragiten dute.

Erabili eta botatzeko produktuen ordez, erosi iraunkorrek direnak. Epe ertainera merkeagoak izateaz gain, hondakin gutxiago sorrarazten dute. Ahal duzun neurrian, zeramika, oihal edo kristalezko produktuak erosi itzazu plastikozkoen ordez.

Saiatu gazta, haragia, arraina, etab. polietileno-zko erretilutan ez erosten.

Behin erabili eta botatzeko sukaldako paperaren ordez, erabili itzazu sukaldako oihalak.

Etxean berrerabili

Objektu bat hondatu edo hausten denean, konpontzera eramaten edo bestelako erabilpen bat ematen saia zaitez. Honela, bere bizi-zikloa luzatu eta hondakin gutxiago sortuko dituzu.

Oraindik baliagarria den objektu edo produktu bat bota aurretik, saiatu zaitez beste erabilpen bat ematen; esate baterako, zure herriko edo eskualdeko 2. eskuko merkatuetara edo Emaus erakundearen Ekocenter-era eramanez. Arropa eta ehun-gaien kasuan, kalean topatuko dituzun edukiontzi zurietan utz ditzakezu (bertan jasotakoa konpondu



ondoren, 2. eskuko merkatuetan saldu edo ongintzara bideratzen da, esaterako).

Ehun-gaiak etxeko garbiketarako erabili daitezke (adibidez: kamiseta zaharrak garbitzeko zapi moduan erabili daitezke).

Gehiago erabiliko ez duzun arropa, zapata edo bestelako objektuak, lagun edo familiako batek berrerabili ditzake.

Produktu berriak erosteko garaian, mailegu edo alokairuan eskura ditzakezun informatu zaitez (DVD, liburu, bizikleta, surf taulak, eskiak, etab.).

Informa zaitez zure herrian edo eskualdean objektu ezberdinen konponketan, altzarien zaharberritzean, 2. eskuko produktuen salerosketan, etab. diharduten komertzio edo saltokien inguruan.

Oparietako bilgarriak egoera onean mantentzen itzazu, beste opari batzuk ditzakezun garain berrerabiltzeko aukera izan dezazun.

Beira edo plastikozko ontziak garbitu eta berrerabili itzazu kontserba-lata, loreontzi edo etxeko objektuak gordetzeko ontzi gisa.

MURRIZTU, BERRERABILI ETA BIRZIKLATZEKO AHOLKU GEHIGARRIAK

no no no
propaganda
ez ez ez



SAN MARKO ESKO MANKOMUNITATEA
MUNICIPALIDAD DE SAN MARKO

Etxeko postontzian publizaterik ez jasotzeko, jarri ezazu zuen nahia adierazten duen eranskin bat atarian. San Marko mankomunitateak doan banatzen ditu, aldez aurretik eskatuz gero (**943 214 977** edo **info@sanmarko.net**).

Botilako ura erosi ordez, **edan** ezazu **iturriko ura**.

Aurrez prestatutako jakiak saihestu.

Jakiak kontserbatzeko, saiatu aluminioa edo plastikoaren erabilera saihesten. Hobe da, ahal duzun neurrian, kristalezko edo plastiko berrerabilgarriz osatutako ontzi bat erabiltzea.

Produktuak noiz iraungitzen diren kontrolatu, hondatu eta zaborrontzira bota beharrik ez izateko.

Telazko mukizapiak erabili pape-rekoen ordez.

Ez bota erabilitako olioak arraskatik behera; sukaldatzeko berrerabili eta jada erabiltzerik ez dagoenean, eskualdean dauden olioak biltzeko edukiontzietan utz dezakezu edo etxeko hondakin arriskutsuak jasotzeko kamiora eraman.



UDALERRIA	TOKIA	BILKETA EGUNAK	ORDUTEGIAK
LEZO	Piku kalea	Hileko 1. osteguna	9:00-13:00
		Hileko azken osteguna	16:00-19:30
ERREENTERIA	Diputazio plaza	Hileko 1. eta 3. astelehenak	9:00-13:00
	San Markoko biribilgunea	Hileko 2. eta azken astelehenak	16:00-19:30
OIARTZUN	Done Eztebe plaza	Hileko 1. eta 3. astearteak	9:00-13:00
		Hileko 2. eta azken astearteak	16:00-19:30
	Carrefour merkataritza gunea	Hileko 2. larunbata	11:00-14:00
	Alcampo merkataritza gunea	Hileko 3. larunbata	15:00-19:00
PASAI ANTZO	Gure Zumardia	Hileko 1. asteartea	16:00-19:30
		Hileko azken asteartea	9:00-13:00
PASAI DONIBANE	Meipi kalea	Hileko 2. asteazkena	16:00-17:30
		Hileko 3. asteazkena	9:00-11:00
	Bizkaia auzoa	Hileko 2. asteazkena	17:40-19:30
		Hileko 3. asteazkena	11:00-13:00
TRINTXERPE	Euskadi etorbidea (merkatu txikia)	Hileko 2. asteartea	9:00-11:00
		Hileko 3. asteartea	17:40-19:30
PASAI SAN PEDRO	autobus geltokia	Hileko 2. asteartea	11:10-13:00
		Hileko 3. asteartea	16:00-17:30



Bezperako ogia edo ogi zaharra erabili ezazu ogi birrindua, ogi txigortua, etab. egiteko.

Etzeko aparailuak argindar hartu-nera konektatu eta pilak erabiltzea saihestu. Beharrezkoak diren kasuetarako, erosi berriz karga daitezkeen pilak. Gehiago erabili ezin direnean, birziklatu itzazu, horretara bideratutako kaleko edukiontzietara, zure herriko puntu berdera edo pilak jasotzen dituzten etxetresna elektrikoaren denda batera eramanez.

Etxean lorategirik baduzu, konpostatzeko aukera ematen dizu San Markoko Mankomunitateak (ikastaroa eta auto-konpostatzeko gailua doan eskainiz). Konposta materia organikoaren (bazkari hondarrak, lorazaintzakoak, etab.) berezko deskonposizioaren emaitza da. Era honetan, konposta gure lorategiko landare eta zuhaitzentzako ongarri gisa erabil genezake, edo baita norbanakoen, nekazariaren, eta orohar, interesatuta egon daitezkeen pertsonen eskura ipini ere.

Iragarkiak, informazio buletinak, zine, musika edo antzerki emanaldien inguruko informazioa, etab. internet bidez lortu. Natur baliabideak aurrezten lagunduko duzu (papera, tinta, ura, energia, ...).

Urtebetetzeetan, familiarteko bile-retan, etab. oihalezko mahai-zapiak eta eskuzapiak erabili paperezkoen ordez, eta plastikozko ontziteriaren ordez, erabili kristalezkoa edo keramikazkoa.

Etxeko ordenagailuan saiatu inprimatutako aleak murrizten, dokumentuak pantailan bertan irakurriz. Era berean, txostenak inprimatzen dituzunean, bi aldeetatik egin ezazu eta paper birtziklatua erabili. Gaizki inprimatutako aleak gorde itzazu zirriborro gisa erabiltzeko, oharrak idazteko edo erosketara zerrenda egiteko.

Ahal duzun neurrian saihestu garbiketarako produktu kimikoak. **Erosi etiketa ekologikoa duten produktuak**, edo bestela, etxean prestatutakoak.

Etxean hondakinak ongi sailkatuz horien ondorengo birziklapena erraztuko duzu.

Etxeko hondakin arriskutsuak eta toxikoak, etzeko obra-hondakinak, egurra, igeltsua, txatarra, neumatikoak, tamaina handiko hondakinak, altzari txikiak, etxetresna elektrikoak, kimatze hondarrak, bidioiak eta bilgarriak, beira zapala (leiho eta ispiluen zatiak), etab. Donostialdea edo Oarsoaldeko Garbiguneetara eraman itzazu (Oartzungo: Talaia poligonoa. Garberakoa: Garbera ibilbidea, z/g. Donostia). Informazio gehiago **garbigunea@sanmarko.net** edo **943 105 159 zenbakian**.

Garberako garbigunea

Asteartetik ostiralera	10:00-13:00/15:00-20:00
Larunbatetan	10:00-14:00/16:00-20:00

Oartzungo garbigunea

Asteartetik ostiralera	09:30-13:00/15:30-19:00
Larunbatetan	10:00-14:00

KALEAN EDO EREMU IREKINETAN

Ez bota paperik, txiklerik edo bes-telako hondakinik lurrera. Lagundu ezazu plaza, kale, parke eta lorategiak garbi mantentzen, hondakin bakoitza dagokion edukiontzi edo zaborrontzira eramanez.

Hondartzara, ibaira, padurara,... zoazenean ez itzazu hondakinak bertan utzita ahaztu. Sortutako zaborra ere, ez ezazu uretara bota. Zaborrontzi edo edukiontzi egokirik ez badago, hondakinak poltsa batean edo motxilan gorde eta etxerako bidean horiek birziklatzera bideratu.



Gehiago jakiteko...

- **Biolur, Nekazaritza Ekologikoaren aldeko Elkarteak Gipuzkoan:**
www.biolur.net (azokak, feriak, ikastaroak, etab.)
- **Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua:**
www.eneek.org (elikagai ekologikoen ekoizle eta saltzaileen zerrenda, etab.)
- **Ikastetxeetan elikadura ekologikoa txertatzeko ekimena:**
www.ekolapiko.net
- **KontsumoTaldeak:**
<http://basherri.wordpress.com/>
- **Bidezko merkataritza produktuen erosteko denden sarea:**
www.comerciojusto.org/localizacion/euskadi
- **Lezoko Udala:** www.lezo.net
(kontsumo arduratsuari lotutako udal-ekimenak, atez-atekoari buruzko atala, etab.)
- **San Marko Mankomunitatea:**
www.sanmarko.net (gauzak konpondu eta berrerabiltzeko establezimenduak, sentsibilizazio kanpainak, hondakinei buruzko datuak, ...)
- **"Oldberri"ren edukiontzi zuriak aurkitzeko web gunea:**
www.sarea.com ("Proiektuak" ataleko, "OldBerri: arropa birziklapena" azpiatalean)
- **Emaús Fundazioa:** www.emaus.com
- **Kalkulatu zure CO2 isurpenak:**
www.ceroco2.org
- **Gipuzkoako ingurumenaren ataria:**
www.gipuzkoaingurumena.net
- **Eusko Jaurlaritzaren ingurumenaren ataria:** www.ingurumena.net

INGURUMEN BALIABIDEEN GIDA

★ OARSOALDEA ESKUALDEA ★

Atez-ateko bilketa sistemari buruzko zalantzak argitu eta herritarrei beharrezko informazioa emateko, Lezoko Udalak atez-ateko informazio bulegoa jarri zuen lezoarren zerbitzura.

Harremanetarako :



Donibane kalea, 2. 20100 Lezo



943 521 538



atezate@lezo.net



www.lezo.net/hondakinak



LEZO

ongizate iraunkorra

OIARTZUNGO GARBIGUNEA



Hauek dira bertara eraman daitezkeen hondakinak:

Edukiontzien gunea: obra-hondakinak, beira laua (leiho eta ispiluetako kristalak), igeltsoa, plastikoa (bidoiak eta bilgarriak), egurra, kimaketa-hondarrak, beira, papera eta kartoia, pneumatikoak, tamaina handiko hondakinak (koltxoiak, sofak,...), etxetresna elektriko txikiak (telefono mugikorrek, zuku-makinak, irratiak,...), hotz aparailuak (hozgailuak, izezgailuak, garbigailuak,...), etxetresna elektriko handiak (teletak, ordenagailuak, garbi-

gailuak, ...) plastikozko, metalezko edo brik motako ontziak, oihalak (arropa, oinetakoak eta osagarriak)

Hondakin toxiko eta arriskutsuak: olioak, fluoreszenteak, aerosolak (in-sektizidak, lakak, etab.), margo eta disolbatzaile hondakinak, inpresoretako kartutxoak eta tonerrak, HTAen plastikozko edo metalezko ontzi hutsak, bonbona botilak, auto-bateriak eta pilak.

Erabilera mugak: Gremioek eta antzerakoek sortutako hondakinak Aizmendiko zabortegian dagoen Garbigune berezira eraman behar dituzte.

Eguna	Orduetgia
Astelehenetik ostiralera	09:30-13:00/15:30-19:00
Larunbatetan	10:00-14:00

Harremanetarako :



Talaia poligonoa, Oiartzun



www.sanmarko.net



Ekocenter Emaús

Ikuspegi prebentibo batetik, hondakinen berreskurapen eta berrabilpenean diharduen Emaús-en Donostiako zentroa da. Eraikin honek ondorengo guneak dauzka:

CRR+: hondakinak konpondu eta berrerabiltzeko jarduerak aurrera eramateko gunea da.

Reparamanía: Objektuak konponduz euren erabilgarritasun-epea luzatu daitekeela zabaldu eta jakinarazteko helburua duen gunea da

Topagune: 2. eskuko denda (altzariak, etxetresna elektrikoak, liburuak, arropa, ...)

Ekoaula: Talde egituratuei zuzendutako kontsumo arduratsua eta berrerabilpenaren hezkuntza eta sentsibilizaziorako eremua.

Harremanetarako :



Gurutzegi, 16 (Belartza poligonoa).
20.018 Donostia



943 367 534



943 474 346



ekocenter@emaus.com



www.emaus.com

Eguna	Orduetgia
Astelehenetik larunbatelera	10:00-20:00



AZPEITIAKO INGURUGIRO ETXEA MUSEOA

Kontsumo arduratsurekin harremana duten hezkuntza jarduerai dagokionez, honakoak antolatzen ditu Ingurugiro Etxeak:

Museoan bertan: Museoak eskoletako ziklo eta maila bakoitzari egokitutako ingurumen izaerako hezkuntza programak garatzen ditu hondakinak eta kontsumoa, garapen iraunkorra, ura, atmosfera eta klima aldaketa, ... bezalako gaietan interpretazio gunean bertan.

Museotik at: 5 bisita osagarri antolatzen dituzte (Kontsumo Iraunkorreko Gela, Lapatz Hiri-Hondakinen tratamendurako zentroa, Igarako Errota, Lasao hondakin uren araztegia, Nuarbeko urtegia, Ibai-Eder edateko uraren araztegia)



Eskainitako programa edo bisita gidatuen zerbitzua eskatzeko beharrezkoa da Museoaren web gunean dagoen inprimakia betetzea: www.ingurugiroetxea.org web guneko formularioa beteaz edo inprimakia osatuz eta ondorengo fax zenbakira bidaliz: 943 812 448. Batxilergoko eta modulu etako ikasleei egokitutako hezkuntza-programak ere diseinatu dituzte, alde aurretik gaia adostuta.

Informazio gehiagorako:



Loiola auzoa, 1. 20730, Azpeitia



943 812 448



museo@ingurugiroetxea.org



www.ingurugiroetxea.org

Eguna	Orduetgia
Astelehenetik ostiralera	10:00-13:00/15:00-17:30
Larunbatetan	10:00-13:30/15:30-17:30
Igandeetan	10:00-13:30

Donostiako Ingurumen Baliabideen Etxea

Ikasturtean zehar, Ingurumen Baliabideen Etxeak ondorengo tailer didaktikoak antolatzen ditu kontsumo arduratsuarekin zerikusia duten gaien inguruan:

“Zaborrontxo gaixorik dago”: ordu beteko iraupena duen tailer hau, Haur Hezkuntzako ikasleei zuzenduta dago. Tailerraren helburuen artean honakoak aurkitzen dira: hondakinak sortzen dituzten arazoetaz ohartaraztea; berrerabilpena sustatuz, objektuen bizi iraupena luzatzea; birziklapena bultzatzea.

“Hondakin arduratsuak”: Lehen Hezkuntzako 1. zikloko ikasleei zuzendutako jarduera honen helburuak hondakinek sortzen dituzten arazoez kontzientziatu eta objektuen bizi-iraupena eta berrerabilpena bultzatzea dira. Jarduera froga, asmakizun eta jolas ezberdinen bidez garatzen da. Iraupena: ordu 1.

“Tttantaka”: uraren zikloa aztertzeko lantegi honen bidez, besteak beste, uraren erabileraren inguruan ohitura arduratsuagoak bultzatu nahi dira. Hartzaileak: Lehen Hezkuntzako 2. Zikloa. Iraupena: ordu 1.



“Kontsumitzaile txikiak”: Ingurumen Baliabideen Etxean kokatutako Kontsumo Arduratsuen Gelara egiten den bisita honetan, parte-hartzaileek etxean ura eta energia aurrezten ikasten dute, jantzi ohi dituzten arropak nondik datozen aztertzen dute, etab. Hartzaileak: Lehen Hezkuntzako 3. Zikloa. Iraupena: ordu eta erdi.

“Xaboi burbuilak”: Ordu beteko iraupena duen tailer hau derrigorrezko bigarren hezkuntzako 1. zikloko ikasleei zuzenduta dago. Helburuen artean honakoak aipatu genitzake: etxean erabiltzen ditugun hondakin arriskutsu batzuk ezagutzeko, halako hondakinen bizitza luzatzea eta berrerabilpena sustatzea.



“Bidezkoa eta beharrezkoa kontsumitu”: Ingurumen Baliabideen Etxean kokatutako Kontsumo Arduratsuaren Gelara egiten den bisita honetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek, lehenik, azalpenak jasotzen dituzte ingurunearen errespetua eta iraunkorrak diren kontsumorako ohituren inguruan. Jarduera honen bigarren zatian, Bidezko Merkataritzari buruzko dinamika batean parte hartzen dute ikasleek. Iraupena: ordu eta erdi.

“Urak, olioak eta xaboiak”: helduentzako taldeei zuzendutako ordu beteko jarduera honetan, esperimendu errazak eginez, ura eta olioaren ezaugarri garrantzitsuak frogatzen dituzte parte-hartzaileek eta xaboi naturala egiten ikasten dute, berrerabilitako olioaren bidez.

“Arduraz kontsumitu”: Kontsumo Arduratsuaren Gelan garatzen den helduentzako jarduera honetan, bertaraten direnek ingurunea errespetatzen duten eta iraunkorrak diren kontsumorako ohiturak zein diren ikasteko aukera dute.

Kontsumo Iraunkorrerako Gelaren hezkuntza eskaintza Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, eta Batxilergoko ikasleei eta baita helduen taldeei ere zuzenduta dago, ikasturtearen eta taldearen ezaugarrien arabera egokitua. Jarduera guztiak euskaraz eta gazteleraz egin daitezke eta doakoak dira ikastetxeetako taldeentzat.

Ingurumen Baliabideen Etxeak antolatutako beste jarduera batzuk:

- Ingurumen gaiekin lotutako dokumentazioa
- Ingurumen hezkuntzako jarduerak (tailerrak, etab.)
- Ikastaroak eta hitzaldiak
- Gai ezberdinetako erakusketa

Harremanetarako :



Mandasko Dukearen
pasealekua, 66.
20012 Donostia



943 453 526



943 471 414



cristinaenea@donostia.org



www.cristinaenea.org

Eguna	Ordutegia
Astelehenetik larunbatera	09:30-13:30/15:00-20:00 (neguan 19:00ak arte)
Igande eta jaiegunetan	10:00-13:30

Eureka! Zientzia Museoa

Kontsumo arduratsurekin zerikusia duten ekintzei dagokionez, honako hezkuntza tailerrak eskaintzen dituzte:

- Lehen Hezkuntza (1. eta 2. maila): "Jan, jan..."
- Lehen Hezkuntza (3. eta 4. maila): "Uraren hamaika aurpegiak"
- Batxilergoa: "Plastikoen mundua"

Eguna	Orduetgia
Astelehenetik ostiralera	09:00-16:30

Harremanetarako :



Mikeletegi, 43-45. 20.009 Donostia



943 012 478 (informazioa) eta 943 012 917 (erreserbak)




eureka@eurekamuseoa.es (informazioa) edo reservas@eurekamuseoa.es (erreserbak)



www.eurekamuseoa.es

ONTZIAK SAILKATZEKO URNIETAKO PLANTA

Ontziak sailkatzeko Urnietan kokatutako plantak San Marko Mankomunitatearen eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen kide diren herrietan (orotara 12 udalerr) gaika jasotako ontziak eta plastikoa hartzen ditu. Mankomunitateak bisita gidatuen zerbitzua eskaintzen du eta baita kontsumo arduratsuari buruzko tailerrak antolatu ere.





Harremanetarako :



Vitoria-Gasteiz kalea, 10.
200180 Donostia



943 214 977 / 943 214 478



943 218 983



sanmarko@sanmarko.net



www.sanmarko.net
("Kontzientziazioa" izeneko atala)

"Kontsumobide" prestakuntza eskaintza

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren prestakuntza iraunkorreko zentroyen sarea da. Teknologia berrien esparruan kontsumoaren inguruko hezkuntza jarduerak diseinatu, landu eta garatzen ditu.

Kontsumobide programaren baitan antolatutako ekimenak eta jarduerak Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei, adinduen zentroetako ikasleei, elkarteei eta kontsumitzaile helduei daude zuzenduta. Ikastetxeen eta helduen zentroyen kasuan, prestakuntza-jarduera batzuk hezkuntza zentroetan bertan garatzen dira eta beste batzuk Eusko Jaurlaritzaren zentroetan. Gainerako interesatuen kasuetan, aldiz, Kontsumobide prestakuntza-zentroetan eramaten dira aurrera.

Harremanetarako :



Zarategi pasealekua,
82-84 bis, 20.015 Donostia



943 022 590 / 945 062 148



943 022 592



formacion-gipuzkoa@
kontsumobide.es



www.kontsumobide.net



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO



www.izadi21.net